

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko azaroaren 12a IV.urtea

Usurbil, 77. zenbakia



**Martxan da  
Nekazaritza Aholku  
Batzarra**



# Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Xabiertxo!** Gaurtik aurrera handia izango zara, 4 urte, eta ezingo dituzu orain artekoak egin: behatzak entxufean sartu, katuari ostikoak eman... Ane, Pello eta ama.



Zorionak **Asier!** Datorren azaroaren 21ean zure 6. urtebetetzea ospatuko dugu. Zorionak! Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partez



Zorionak **Maddi** azaroaren 5ean urte txiki bat bete zenuelako. Gure etxeko printzesa polittari muxu handi bat familia osoaren partez, baina batez ere zure lehengusu Joanes, Beñat, Peru eta Xabaten partez



Zorionak **amona Gabri!** Urtebetetzea bazkari goxo batekin ospatu beharra daukagu. Muxu pilo bat zure iloben partez.



Azaroaren 9an izan zen zure urtebetetze eguna, baina zorionak **osaba Juanxo!** Ea tarta goxo bat dastatzera gonbidatzen gaituzun. Hire ilobatxo maiteak.



Zorionak **Andoni!** Azaroaren 16an betetzen duzu zure lehen urtea. Muxu handi bat zuretzat "pottolo", eta batez ere Ainhoa eta Jon zure lehengusuen partetik. Urte askotarako!



Duela 45 urteko San Martin egun batez, azaroaren 11ean ezkondu zinetenez, zorionak eta muxu pilo bat zuen seme-alaben partez, benetan harro sentitzen gara eta zuetaz! Urte askotarako aita **Joxe Mari** eta ama **Mª Jesus**



Etzenuen ez Itziarra joan beharrik izan emakume xarmantarekin elkartzeko. Zure etxe alboan zenuen zain bihotz bi bat egiteko prest, eta zer esanik ez, bikote ederra ogia banatzen. Zorionak **Nikolasa eta Jorge** 50 urte elkarrekin izategataik.



Zorionak **Joxe Mari!** Azaroaren 20an hartuko dugu kafetxo hori. Muxu handi bat. Etxekoak.



Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak **Idoia**, zorionak zuri. Muxu handi bat.

**Hona hemen edonor zoriontzeko tarte. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.**


**Hurrengo alea: azaroaren 26a  
Ekaritzeko azken eguna: azaroaren 19a**

## Jaiotzak

**Veronica Garcia Sanchez**  
(1999-10-25)  
Santuenea

**Ainhoa Segurola Albisu**  
(1999-10-28)  
Urdaiaga

**Nora Errazkin Ezeiza**  
(1999-11-02)  
Kaleberri



- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kirolegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate goitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21

### EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN			ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15
08.30	08.55	09.15
09.30	09.55	10.15
10.30	10.55	11.15
11.30	11.55	12.15
12.30	12.55	13.15
13.30	13.55	14.15
14.30	14.55	15.15
15.30	15.55	16.15
16.30	16.55	17.15
17.30	17.55	18.15
18.30	18.55	19.15
19.30	19.55	20.15
20.30	20.55	21.15
21.30	21.55	22.15
22.30	22.55	23.15

Zarautz	Usurbil	Donostia
06.45	07.05	07.30
07.45	08.05	08.30
08.45	09.05	09.30
09.45	10.05	10.30
10.45	11.05	11.30
11.45	12.05	12.30
12.45	13.05	13.30
13.45	14.05	14.30
14.45	15.05	15.30
15.45	16.05	16.30
16.45	17.05	17.30
17.45	18.05	18.30
18.45	19.05	19.30
19.45	20.05	20.30
20.45	21.05	21.30
21.45	22.05	22.30

\* Orioraino bakarrik      \* Orietik irtetzen da  
\*\* Aiaraino joaten da      \*\* Aiatik irtetzen da



# Zer irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.com  
Web orria:  
http://www.topagunea.com/noaua/

## Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

## Kazetariak

Arantxa Usarralde, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

## Publizitatea

Saioa Erro

## Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Arantxa Irazustabarrena.

## Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

## Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Agurtzane Solaberrieta eta Saioa Erro.

## Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

## Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta  
Nagore Gonzalez

## Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

## Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko udarako ordutegia:** 11.00-13.00 astegunetan

## Irizpide bat bake prozesurako ez baztertu

### Elkarri

**U**surbilgo elkarriko tailerreko kideok, lerro hauen bidez, herrian ikusi dituzun txartletako irizpidearen mamia azaldu nahi dizugu.

Bake-prozesu batean distentsioa, elkarrizketa eta lankidetzaren egon arren, gerta daiteke hau guztia nahikoa ez izatea. Elkarbizitza soziopolitiko bake-tsu, integratu eta demokratikoak beste irizpide bat kontuan hartzea eskatzen du: ez baztertzea. <<Ez baztertzeak>> esan nahi du etorkizuna eta gure elkarbizitzaren berreraikuntza guztion artean -politikoki eta sozial eta geografikoki hitz eginenez- egiten dela sinestea.

Denok barruan egotea lortzeko metodo unibertsalena eta argiena sentsibilitate eta tradizio politiko guztietako ordezkariak bildu eta parte hartuko duten elkarrizketa eta negoziazio espazio bat sortzea da. Alderdien foroa eta mahaia (edo mahaiak) beharrezko tresna da inklusiorako eta, aldi berean, bake-prozesu ez baztertzailer bat bermatu eta egituratu dezakeen ardatza da.

Bake-prozesuek gainditu behar izaten duten arazoetako bat sentsibilitate urrunenak bertaratzeko duten gaitasuna da. Aurrerapausoak eta atzerapausoak faktore honi lotuta daude. Palestinako bake-prozesua honen adibidea da,

ematen den aurrerapauso bakoitza guztiz lotuta egoten da baztertze edo ez baztertze politika eta proposamenekin.

Honek ez du guztia argitzen, baina ez baztertzea bake-prozesu batean bete beharreko baldintza da. Hegoafrikan edo Ipar Irlandan konponbide iraunkor baterako aukerak, akordio proposamenak edo elkarbizitza integraturako formulak jasotzen hasi zirenean, zabalitzen dira. Nabarmenena, bi kasu hauek, guztiontzat marko bat sortzeko ahalegina da, gehiengo eta gutxiengoen arteko dinamikak gainditzeko ahalegina, alegia.

Ipar Irlandako adibidetik atera genezakeen irakaspenik interesgarriena da prozesu horretan; oztopo berriei, sistematikoki metodo zehatz baten bidez ematen diotela erantzuna: guztion artean berriro negoziatioari heldu. Orain, gure prozesuan, komenigarria litzateke indar politiko guztiek irizpide honekin bat egitea: arazo, oztopo, desadostasun bakoitzaren aurrean erantzuna guztien arteko negoziatio iraunkorraren metodoa izan behar duela.

Gurekin jardun nahi baduzu, zatoz *Noaua!*rekin eta beste hainbat elkarterekin konpartitzen dugun egoitzara. Asteazkenetan gaueko 10etatik 11,30etara.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

### Azala:

Nekazaritza  
aholku-batzarraren  
aurkezpena



**Etxeko berri**

**IRUTXULO** **Noaua!!**  
Donostiako atekaria H A M A B O S T E K A R I A

**elkarlanean**



Javier Clemente Reseiko lehola

Eusebio Eduardo Aragolaz

Guztiok dakigu Zubietan zein egoeratan dagoen gaur egun. Zubietan batzuk Donostiako lurretan bizi dira, eta Usurbilgo lurretan beste batzuk. Zubietak, Usurbilgo beste auzoen antzera, bere lekua izan du hasiera hasieratik Noaua! aldizkarian. Kalejiran sailan hamabostero hamabostero Zubietan gertatutako berri ematen digute hutsik egin gabe, alero-alero, bertako korresponsalek.

Donostiako Irutxulo aldizkariak ere Zubietari tarte bat eman nahi izan dio. Horregatik, dagoeneko gure kronistek Noaua!n idazten duten kronika Donostiako aldizkarian azaltzen da hamabostean behin. Horregatik zubietarrek Irutxulo aldizkaria jasoko dute urte bukaera bitartean. Horrez gain, urte bukaeran Zubietako urtekari antzeko bat argitaratuko dute Noaua! aldizkariak eta Irutxulok elkarlanean.

**Txirrikitutik**

*A ze komeriak! Izerdi ugari bota behar izan zuten autobus hau leku horretatik mugitzeko. Ez aurrera eta ez atzera, ez so eta ez arre, hortxe gelditu zen autobusa pasa den urriaren 26an. Traktore eta guzti mugitzen saiatu ziren, baina alferrik, kablea erditik hautsi baitzen. Autobusa oraindik hor dagoen begiratu al duzue? Lasai, atera zuten eta!*



**OSTAPE ARANGUREN**

**GASA eta BEROKUNTZA**

☎ 943 36 43 64- 943 36 16 95



**Kale Nagusia, 9**  
**Tif. 943 37 33 48**  
**943 37 09 13**

**USURBIL**

**BORDATXO EDARITEGIA**

**PINTXO BEREZIAK**

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



## Urtezahar eguna: gero eta gertuago

**H**onezkerok jakingo duzue gehienok Urte Zahar Egunerako ditugun asmoen berri, herrian oso zabaldua baitago dagoeneko. Aurreko batean aipatu genizuen lelo baten bila genbiltzala; orain antolaketan lanen berri ematera gatozkizue.

2000. urtearen etorrera aurrean dugu, eta kontu horrek bazter guztiak astindu behar dituela dirudi, milurte batetik besterako aldaketak mundua aldatuko duen ustean. Ez gara zerozaleak, baina guztiak garrasi egin behar badute, guk ere, euskalgintzan gabiltzanok, egin behar genuke. Eta euskal festa giroan bada, Usurbilen hobe.

Horregatik ari gara antolatzen Urte Zaharreko Jaialdi hau, Kultur Elejirako lantaldea eta Usurbilgo hainbat talde eta lagun artean. Egun osoko jaialdia izango da, goizean hasi eta hurrengo urteko ordu txiki-etan amaituko dena. Euskararen iragana eta etorkizuna batu nahi ditugu jaialdi horretan, eta Erdi Aroko giroko azoka batekin hasiko da eguna, eta akelarre batekin bukatu, kanpaiak entzun eta gero.

Herritar asko ari da parte hartzen antolaketan lanetan, bai bi astean behin egiten ditugun lantaldeen bileretan eta bai beste lan jakin batzuetan. Lantalde batean jaialdia ezagutzera emateko bideak aztertzen ditugu, beste batean egitaraua lantzen dugu eta hirugarrenean azpiegitura beharrak aurikusten saiatzen gara. Lantalde haue-

tan parte hartu nahi baduzue aski duzue **Lurdes Zubeldiarekin** harremanetan jartzea, berak esango dizue zein ordu eta egunetan bilduko diren.

Orain arteko bileretan egindako lanaren ondorioz, hauxe da aurreratu dezakeguna:

Goiz partean azoka izango da, herriko plaza eta inguruetan. Ez da ordea ohiko azoka izango, garai batekoak bezalakoak izatea nahi baitugu: artisauek, herri-kirolak, gaztain-saltzaileak eta talogileak, txistulariak, trikitilariak, bertsolariak... denetik izatea nahi genuke. Azoka berez irekia izaten da, edonork har dezake parte, eta horretara gonbidatu nahi genuke herritar nahiz kanpoko jendea, parte hartzea, ikus eta erakus dezala bakoitzak gainontzekoei eskaini diezaiekeenak. Udarregi ikastolakoak ari dira dagoeneko haurrentzako zerbait prestatzen.



Arratsalde partean, bazkalondotik hasita herri-kirolak izango dira. Idi-demak eta Gipuzkoako eta Bizkaiko UEMAko bi herriren arteko norgehiagoka izango dira ekitaldi nagusienak. Antzoki txiki bat izango ere izango da eta bertan hainbat ikuskizun: antzerkia, ipuin-kontalariak, kantaldia... Ilunabarrean berriz, bertso-poteoa, trikitixaz lagunduta, herrian zehar.

Afalorduan, kanpoko jendea etor daitekeenez, hauei afaria herrian bertan eskaintzeko dau den aukerak aztertzen ari gara.

Gauerdian kanpaikadak, milurte berriari ongi etorria egiteko eta, ondotik, erromeria, frontoian bertan.

Oraindik gauza asko dago zehazteko eta ez dakigu zein neurri izango duen azkenean jaialdiak (Foru Aldundiari eta Jaurilaritzari eskatutako dirulaguntzen erantzunaren zain gara oraindik), baina egitaraua nahiko aurreratuta daukagu. Osatu ahala jasoko duzue bere berri.

Egun horretarako abesti bat sortu nahian ere bagabiltza eta **Imanol Urbieto** musikariarekin eta **Andoni Egaña** bertsolariarekin egon gara horretarako. Biak ere prest daudela esan digute eta horretan ariko dira honezkeror. **Alejandro Tapia** bera ere jaialdiko txartela egiteko prest azaldu da.

Horixe da oraingoz, labur-labur, esku artean darabilguna. Izango duzue aurrerago ere berri gehiago.

**Antolatzaileak**

*Zinkildegia*

Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

**TXIKILINDO**

- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

*Pinturas  
Ion*



www.pinturasion.com



# TXOKOALDE

Imanol Goenaga



## Ura beruntz eta Angulak goruntz


Noaualko postaletan Erroizpeko presa oso dotore agertzen da: Oso garbia eta txukuna. Baina azken aldi honetan igo denak ondotoxo daki itxura desberdina duela oso, erdi hutsik eta zikin-zikin baitaigo.

Zergatik ote da? Euri asko eginda ere ez da betetzen eta algak ere asko ugaritu dira. Izango al dugu presa lehengo moduan ikusteko aukerarik?

Bestalde, urria aurrera doa eta hasiak dira dagoeneko angulak Sargazoetatik gure kostaldeko ibaietarantz etortzen. Ia egun hauetan farolen bat ikusi ahal izan dugu ilunpean hain

preziatuak diren angulen bila.

Ziur anguletan ibiltzen diren baporeek ere dena prest dute-



la. Hemendik aurrera hor ibiliko dira ibaian gora eta behera. Hori da hori afizioa! Batzuk "anguletan" aritzekoa eta beste batzuk (gehintsuenak) "angula jaten" aritzekoa.

Gabon usaina ere badatorrigu, zer hoberik norberak harra-patutako angulak familiarekin gabonetan dastatzea baino? Hala eta guztiz ere, anguletan aritzen direnen onerako, espero dut familia oso haundia ez izatea, a ze lanak bestela!

Ea ba zorte ona duten eta uzoan hainbeste angulazale izanda, aurten probatzeko moduan gauden!

# KALEBERRI

Jokin Zubiaur



## Hizkuntza bat ez da galtzen...

Eneko Harreguyren idaztan-kerari jarraituz, beno hobeto esanda gaien edukiari kasu eginez, euskararen erabilera eta berreskurapenari buruz mintzatuko natzaizue.

Argibide gisa, pasa den kurtsoan, Lasarteko Batxiler Institutuko Euskara Batzordeko kide izan ginenok euskararen erabileraren kale neurketa bat egin genuen bertako Udaletxeko Euskara Zerbitzua- ren borondatez; beraz, badut nolabaiteko aurreikuspegi bat.

Emaitzak ez dira hutsa ere Usurbilgoekin alderatuz; % 17,8 da Lasarten euskararen erabilera. Harritu ninduen ez zen datua izan, Euskara-Zerbitzuko

buruak zuen baikortasuna bai zik; datua, neurketa egin den hamar urteetako altuena baitzen.

Usurbilen, UEMA-ra sartzeaz ginenean %81ekoa zen euskaldunen kopurua. Lasarteko Euskara Zerbitzuko buruak datu hori egi-egia ez zela jakinerazi zigun arren, Usurbilen erabileran ere aise gaintitzen dugu por-tzentaia eskas bezain itxaropen-tsu hori. Baina tentuz jokatu behar dugu; euskaldun ez direnak integratuz, euskara bere senti dezaten; dasta dezakeguk bezala goza dezaten; inolaz ere jarrera despektiboekin.

Lehengo baten, herriko taberna batean negoziela B.Gandiagarren poema batek bereganara-

zi zidan arreta, paretean itsatsita, horrela zioen bertsoetako batean: "...Euskara ez dakienak, berak jakingo du zergatik ez dakien...". Badakit ahapaldiaren bukaerak beste zentzu bat ematen diola olerkiari, eta egileak beste kontestu batean idatzi zuela; baina, ni ez nintzen gustora sentitu garagardo bana hartzen ari ziren Usurbildar haien gaztelania entzunda. Horregatik, errua, bere lema gisa hartu duen elkartean datzala uste dut.

Ez da kontu hain delikatuanezer aurpegiratu behar, askotan euskaldunen artean joera arraragoak izaten direlako eta batez ere ez duelako euskararen normalizazioen laguntzen.



# KALEZAR

## Exeriko al gea eo?

Udazkenean sartu ginela bada hilabete bat, eguraldiari erreparatu baino ez dago. Aurtengo lehenengo izotzak ez dira urruti ibili, hotz egiten zuen aurreko astean behintzat. Hori nahikoa ez eta gainera ordu aldaketa, orain arratsaldeko seirak aldera iluntzen hasten da eguna, batzuren kalterako eta besteen pozerako.

Eguraldi kontuak baztertu gabe, berau lagun badugu behintzat, jende ugari hurbiltzen da Anaerrika inguru honetara bere eguneroko ibilaldia egitera. Batez ere pertsona edadetuak izaten dira, sendagileak gomendaturik edo ibiltzea osasungarria dela pen-

tsatu eta etortzen direnak, txoko ederra baita horretarako. Eta horrela esan zidaten aurreko batean haruntza nindoala:

*-Aizak, Joseba, gu zahartu gaituk eta ez ditiagu hire hanka arin horiek. Tarteka atsedena hartzera gelditu egin behar diagu. Horretarako baditugu gizon batek eskuz eginiko eserleku zahar batzuk ibilbide osoan zehar, baina egoera txarrean zeudek*

Joseba Pellejero



*eta eskaera hau jartzea gustatuko litzaiguke. Ea Udalak arazotxo honi irtenbidea aurkitzen dion, horrela, jende edadetu gehiago etorriko litzateke.*

Eta nik, entzun eta idatzi.




# ATXEGALDE

## Zer den jakin nahian

Gaur egun edozein errepidetan mota guztietako seinaleak eta ikurrak ikusten ohituak gaude: borobilak, hiru-kiak, karratuak,...kolore askotakoak ere aurki ditzazkegu: gorriak, txuriak, urdinak, horiak,...

Bakoitzak bere esanahia dauka eta horren arabera dagozkion tokietan jartzen dira.

Alde batera edo bestera begiratu eta hortxe aurkitzen ditugu, batzuk zutik, beste batzuk erdi etzanda eta okerreanean, istripu baten ondorioz,erabat puskatuta.



Zaloa Arnaiz



Arruntenak ezagutzeko gai izaten gara; bereziagoak direnak liburuan begiratu behar bada-ezpada ere, baina guztiz arraroa eta ezezaguna bada?

Auzoan badugu aspaldi honetan horietako bat. Guztiz bitxia eta interesgarria, Mahaspildegia elkartearen aurreko aparkalekuan zutik dagoen poste hutsa, hain zuzen ere.

Bat batean ikusita ez da erraza bere esanahia asmatzen. Begira eta begira jarrita, azken momentuko seinale berriren bat ote?



# SANTUENEA

## Estalkiaren falta

**G**ure auzoan ez dago estalki jatorrik. Auzoko umeak, euria egiten badu, ez dauka non babestu. Ezin dute kalean jolastu, jolasa hain beharrezkoa izanik. Ez haurrak bakarrik, bere zaindarien ( amak, aitak, amonak edo dena delakoak) ez dute bere burua non babestu etxean ez bada.

Usurbilen, horrelako lekuak bultzatu beharko genituzke, elkartzeko tokiak bihurtzen direlako, bai haurrentzat eta baita helduentzat ere. Hau ezkerreko politika egitea izango litzateke, jendea elkar topatzeko lekuak jarriaz.

Eskatzen dena badakit garestia izan daitekeela, baina apustuak beti dira garestiak. Agian iristen ez den frontoiaren tokian, lurra txukundu eta behin-behineko estalki batekin nahikoa izango litzateke. agian bai? Zergatik ez du datoreen aurrekontuetan udalak auzorako estalki bat planteatzen?

Beste alde batetik , dagoen estalki txikia autobus geltokia da. Hau, gazteek erabiltzen dute ezkutatze eta zikinkeria mordoa pilatzen da bertan. Guztia "grafitiz" beteta dago eta okerragoa

dena, batzuk pisa ere bertan egiten dute. Hau dela eta, zerbait pentsatu beharko litzateke autobus geltoki honekin.

Baten batek beste ideien bat baldin badu, niregana jo besterik ez du.

Agustin Esnaola



# URDAIAGA

## Santuak direla eta...

**O**raingoan, Papela eta boligrafoa hartu eta Urtinea aldera azaldu naiz.

Denok dakigu santu guztien eguna dela eta izugarriko mugimendua egoten dela bertan. Askoz ere jende gehiago egoten da lanean, askoz ere ordu gehiago eta, nahiz eta santu guztien eguna bakarra izan, zortzi egun pasa behar izaten dituzte lan gogorra eginez.

Aurten, gainera, egun hau astelehenean egokitu denez, asteburua luzea izan da, eta jendea lore bila joaten ostegunetik hasi omen zen.

Egun hauetan urtean zehar baino askoz lore gehiago saltzen da eta urtetik urtera gainera eskaria handiagoa da. Jendeak hilerrira apaintzeko ilusio handia du, baina aurten arazoa haizea izan da.

Lehen, egun honetarako lore moztuak erosten omen ziren gehien (klabelinak, arro-



sak,...).Orain, berriz, landarea erosten da gehiago, gehiago irauten duelako. Orain, gainera, lorea fresko mantentzeko esponja berezi bat dago eta loreak zentro tipoa jartzen dira.

Loreak erostera hemen inguruetatik etortzen omen da jendea: Donostia, Orereta,...baina usurbildarrik ere ez da falta izaten, herritar asko ibiltzen da.

Ohiturei dagokienez, badirudi lehengo farola, krisentemoak,...berriz ere modan datoze-la. Nik krisentemoa zer zen jakin ez eta lore eta guzti itzuli nintzen etxera.

Alazne Begiristain





# AGINAGA

## Patxi Mitxerkoeneko

**D**uela aste batzuk iritsi ziztaigun berria; berri txarra, Patxi Mitxerkonekoa atxilotua izan zela Frantzian, Pau inguruan, beste bi errefuxiatuekin batera.

Badira bost urte gure herritik alde egin behar izan zuela, eta geroztik ezkutuan bizitzera behartua egon da, beste ehundaka errefuxiatu gertatzen zaien bezala. Urte haue-tan bere berririk ez dugu izan Paueko gertaera arte.

Ezagutzen genuenok sarritan faltan botatzen genituen soziedadean prestatzen zituen afari goxoak, edo festetan antolatzen ziren herri bazkariko zikiro jan eta abar luze bat... Zer esa-

nik ez bere ofizio zen mekani-ka... zenbat kotxe eta traktore ez ote zituen konpondu musu-truk!

Orain Patxi Paris inguruko espetxe batean dago preso, epaiketa noiz egingo dioten zain; Euskal Herritik eta familia eta lagunengandik oso urruti eta bakarrik. Egoera hau pittin bat arintzeko gutako edonor postalak edo gutunak idaztera animatzen zai-

Manuel Begiristain



tuztet. Seguru nago gustora jasoko dituela. Hemen doakizue bere helbidea:

**Jose Francisco Segurola  
Mayoz**

**n: 271772 Maison d'Arret, 42  
Rue de la Sante 75014 Paris**



# ZUBIETA

## Zer gera gu, nor gera gu...

**Z**er gera gu, nor gera gu... "Ez da kanta zahar baten letra hemen idatzi nahi dudana, zubietarren egoera baizik.

Badirudi nortasun propiorik ez dugula, ezta gure beharrak asetuko dituen berezko zerbitzurik. Hori da behintzat hainbat urtetan bizitako egoerek erakutsi dugutena.

Noiz ez zaigu eskutitzen bat iritsi Zubieta izena ezabatu eta Lasartekoa idatzita? Zaborra zein uraren zerbitzuak aldiz Usurbilgo Udaletxeak eskaintzen dizkigu, baita Donostia aldekoak garenoi ere (eskerrak eman beharrean nago). Eta



azkenik anbulategia, kilometro eta erdira dagoenera joan beharrean (hau ere Donostia aldekoei egokitu behar) legea-

Olatz de Miguel



ren arabera 10 km.-tara dagoen O ndarretako anbulategira joatea egokitzen zaigu. Orain Usurbilgora joaten gara, baina Osakidetzaen "mesede" moduan. Eta sendagileak noz-bait etxera etorri izan beharko balu, honek ere Donostitik etorri beharko luke Osakidetzaen arabera (ez ordea usurbildarren kasuan).

Informatikako programadore-entzat ere, Zubieta ez da existitzen, Donostia aldekoen posta kodea lasartearrena bezala hartzen baitute.

Usurbildarrak, donostiarrak, lasartearrak... Ez al gara inorentzat zubietarrak?



# Herriko baserriak suspertzeko ahaleginean

**U**surbil, Euskal Herriko beste herri askoren modura, nekazaritza eta baserri bizitzari oso lotuta egon da urteetan zehar. Gaur egun, ordea, baserria gainbehera doa gure herrian. 1997an nekazaritza edo abeltzaintzari lotuta zeuden 160 baserri inguru bazeuden, momentu honetan kopuru horrek nabarmen egin du behera. **Nekazaritza suspertzea eta biziberritzea: baserria zaindu, suspertu eta sendotu. Horixe da udalan sortu den Nekazaritza aholku-batzarraren helburu nagusia.**

Pasa den urriaren 28an izan zen Nekazaritza aholku-batzarraren aurkezpena. Bertan ziren besteak beste **Joxe Antonio Altuna** alkatea, **Xabier Orbegozo** Nekazaritza arloko batzorde burua, **Maite Agirrezabal** EHNEko ordezkaria, **Iñaki Goenaga** EMBako ordezkaria, **Jon Mikel Murua** Nekazaritzako diputatu nagusia eta Behemendi elkarteko

**Juan Kruz Alberdi.**

Guztiek begi onez ikusi zuten udalak martxan jarri duen egitasmo hau. Izan ere, nekazaritzaren eta batez ere baserri munduaren gainbeheraren aurrean zerbaitegin beharra zegoen, eta udalak nekazarien ikuspuntuak jakin eta elkarrekin aurrera pausoak emateko bide garrantzitsu bat ireki du aholku batzar honen bidez.

Aholku-batzar hau udaleko Nekazaritza-batzordearen eta Gobernu-batzordearen aholkulari izango da nekazaritza arloan. Nekazaritzari buruz

egin eta azalduko diren lan-planen eta gainerako egitasmoetan partaide zuzena izango baita bere erizpideak eta aholkuak ematerakoan. Horregatik, herriko baserritarrak eta nekazaritza



**Xabier Orbegozo**

**Nekazaritzako batzorde burua**

## Zein da Aholku batzarraren helburu nagusia?

Herriko nekazariak ideiak eman eta horiek piskanaka-piskanaka gauzatzea. Baserritarrek izan behar dute protagonista nagusi eta udalak hauen egitasmoak bideratu beharko lituzke.

## Zein egoeratan dago herriko nekazaritza?


Baserritarrak beren iharduera uzten ari dira. Egoera iluna da, gazterik ez dago, baina guk gazteengan interes hori berpiztea nahi dugu.

arloan dabilzan herriko elkarrekin izango dira batzar honen sostengu nagusi. Gertueneko duten instituzioan, udalean, hauen eritzi eta ikuspuntuak jaso nahi dira, guztien artean nekazaritza arloa suspertu asmoz.

Baserria mantentzeak gurea bezalako herri batentzat duen garrantziaz jabetuta, azken urteetan pipermin lantokia, eztiola eta fruituak eraldatzeko gune berriak eraiki dira, baina hori ez da nahikoa. Arazo nagusi batekin aurkitzen dira herriko baserriak: bertan lan egin nahi duen gazterik ez dago. 30 urtetik beherako 17 pertsona bakarrik jarraituko dute baserrian, eta 50 urtetik gorakoak berriz, 100 inguru daude. Baserritar erdiek beraien iharduera laister utziko dutela diote, gutzia gazte faltagatik.



*Haur jantziak*



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



**ZUMETA JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

## ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 laguntzat)

- Etxeko ahañe foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pzta. (pertsoneko)



**BAZKARIAK  
ETA AFARIAK**

Santuenea 23  
Tf.9433627 34



## Atxegatarren eta usurbildarren arteko maitasun eta gorrotozko historia

**A**txegatar eta usurbildarren artean ikamika ugari izan dira urteetan zehar. Oinaztar eta ganboatarren arteko borrokak eragin handia zuten garai bateko Usurbilgo San Salvador bailaran eta pakea hitz ezezaguna zen orduan. Usurbil-

darrek atxegatarrengandik urrun bizi nahi zuten, baina era berean honen babes behar zuten edozein borroketan. Maitasun eta gorrotozko historia hau azaltzen saiatuko gara lerro hauetan. Denboraren makina hartu eta XIV mendera salto egin dezagun.

1371. urtearen atarian Usurbil Salbatore kolazioa zen. Garai hartan bailaraka antolatuta zegoen Gipuzkoa eta inguru honetakook "San Salvador del Valle de Usurbil" zuen izena. Itxura guztien arabera Salbatore izeneko eliza (monastegia garai hartan) bazen garai hartan, eta haren inguruan bi komunidadek, Zubieta eta Aginaga, eta hiru auzo, Elizaldea, Urdaiaga eta Usurbil zaharra edo Kalezar.

XIV. mendearen hasierako Usurbil (oraindik ez zen herria) hartan garrantzi handiko hiru leku aipatu behar dira:

- Atxega aldeko ubidean zegoen Usurbilgo toki nagusia. Atxegako ubidea, Atxega jau-regia, torrea eta portua han omen zituen, baita Aginaga, Orio eta Aia- Gipuzkoa barnerako bidegurutzea ere. Han bateratzen ziren bide nagusiak: Gaztañaga aldean gora, Igeldora zihoana; Aginagara eta Oriora zihoana; ibaiaz harantz Aiara zihoana; eta Adatzen zehar, Gipuzkoaren

bihotzera zihoana. Dirudienez, Andatza aldetik, Atxegako ubidean pasata, sartu zen lehenengo artzaia. Usurbilen eta bertan bizileku egin.

- Elizaldea. Han ziren Saroe, Paris, Eliza eta apaizetxea (abadia eta monasterioa deitzen zitzairen) baziren garai hartan. Eta han, noski, herriko biitoki zen Parisko Arizti sonatua.

- Troia aldea Donostia, Hernani eta Zubietara joateko bidegurutzeak zeuden hemen.

Baina usurbildarrak ez zeuden gustora. Atxega jauna ganboatarren aldetik borrokari sutua izanda, inguru honetan borrokak askotan izaten

### XIV. mendean Usurbil inguruan izaten ziren borrokatik, usurbildarrek herri-bildua (villa) eratzea eskatu zuten

ziren, eta lur eremu zabalean sakabanatuta zeuden base-riek galera handiak izaten zituzten. Honela bada, 1371an idatzi bat bidali zioten **Enrike Ila** erregeari. Bertan, Usurbilgo San Salvador ibarreko biztanleek, bizi ziren etxeak banatuak eta elkarrengandik urruti zituztela jakinarazi zioten Kastilla eta Leoneko erregeari, eta horregatik herri-bildua (villa) egin nahi zutela bere buruaren jabe izan zedin. Honen aurrean **Enrike IIak** usurbilgo San Salvador zeritzan kolazioko biztanle, bizilagun eta parrokiak herri berezi, bildu eta hormaduna egin zezaketela agintzen zuen idazkia onartu zuen Toron egin zen Kastillako Batzar Nagusian 1371ko irailaren 11an. Izena errege berak eman zuen: "Belmonte de Usurbil".

Aurrez esan dugun modura, Atxegako jauna, **Migel Ibanez** zen herriko Ahaide Nagusia. **Enrike Ila** orduko errege zen **Pedro Iaren** aurka altxa zenean Atxegatarrek lehenengoan



ren alde atera ziren, eta normalena Usurbil herria atxegatarren inguruan antolatzea zen. Baina ez zen horrela izan. Usurbildarrek harresiz babesturiko herri-bildua eskatzen zuten, baina ez zuten esaten, zumaiairek eskatu zuten bezala, jauntxoengandik jasaten zituzten kalte eta oinazeengandik babesteko nahi zutela (agian atxegatarren eta beste jauntxoak ez haserretzeagatik).

Erregeak Atxegako jaunak bere alde egin zuenagatik, esker onez, herri-bildua honen jauregiaren inguruan egiteko agindu zezakeen, baina ez zuen hala nahi izan. Boterean jarri berria zen, eta herritarrek bereganatu nahi zituen lehenik eta behin. Horregatik kasu askotan herritarren alde atera zen **Enrike IIa**.

Baina non egin ordea herri-bildua? Zergatik ez erdi-erdian, Elizaldean? Sailik izango al zen han etxe berriak egiteko? Atxegarenak izan behar zuten Bustinzulo eta handik elizara bitartekoak. Beste aldetik Paris eta Saroeren esparruak zuden. Horrela bada Bizkarretik lartza bitarteko lepoan eratu zuten "*Belmonte de Usurbil*". Egoera honetan Atxega jaunak bere desadostasuna agertu zuen eta XVII. mendean oraindik nabaria zen herriaren aurkako jarrera.



Kelzarren zergatik? Donostia aldera jo nahia agian, edota Zubieta ere kontutan izan nahia, edota Atxegarengandik piska bat urrutiratu

eratu zen XIV. mendean egungo Usurbil. Izan ere, garai hartan eliza atxegatarren esku zegoen eta seguruenik hauen-gandik urruti eratu nahi izan zuten herria.

### Gaur egungo Kalezarren inguruan eraiki zuten herria usurbildarrek. Baina zergatik parrokiaren inguruan?

nahia? Agian hura zen harresirik gabe toki seguru eta menderagaitza gerta zitekeen lekua. Kontuak kontu, parroki eliza bere barruan izan gabe

Parrokiaren inguruan ikamika ugari egon izan dira mendeetan zehar usurbildar eta atxegatarren artean. XIV. mendean Atxega zen Salvatore eliza edo monastiaren zaindaria. Atxegak, bere agirien artean, beti egin ohi zuen 1179. urtean ospatu zen Letrango kontzilioaren aipamena. Kontzilio honetan elizen zaindarien aurkako erabakiak hartu ziren, baina Atxegari zaindaritzari dagokionean ez zuen baliorik izan. Usurbilgo elizaren gain zuen eskubidea Letrango batzar hau baino lehenagokoa zutela esaten zuten atxegatarrek.

Zainketa honen adierazgarri da 1487an Atxegako jaunak, **Migel de Otxoa** eskribauaren aurrean, azaldu zuen zaindaritzaren agiria. Lanzelot Iruñeako gotzai-ordeak 1412an emandako dokumentua zen, eta bertan Atxega elizako zaindaria aitortzen du. Beti agertuko da agiri hau Atxega eta usurbildarren arteko auzietan. Izan ere 1487an herritar eta Atxegaren arteko auzia





izan zen parrokiaren zainketa-  
ren inguruan, eta dirudienez  
Atxega atera zen irabazle.  
Garai honetan beraz, elizaren  
emari guztiak Atxegak hartzen  
ditu, eta erretorea ere berak  
aukeratzen zuen.

Usurbilgo herriak ez zuen,  
inoiz gogoz hartu Atxegaren  
elizako zaindaritza. Hauxe da  
herritarrek urteetan eta men-  
deetan zehar aldarrikatu izan  
zutena:

- Guk eliza egin eta Atxega  
zaindari zergatik?

- Izan dadila zaindari, baina  
guk horri hamarrenak eman?

- Hamarrenak beretzat  
behar baditu, ondo saritu  
ditzala herriko apaizak.

-Atxegak aukeratu behar al  
ditu gure apaizak?

- Apaizak aukeratu behar  
baditu, herriko semeak aukera  
ditzala, hamarrenak ordain-  
tzen dituzten etxeetakoak, eta  
ez kanpokoak.

1519an herriko kontzejuak

## Atxegatarren eta usurbildarren arte- ko ikamikak eten- gabekoak izan dira historian zehar, hamarrenengatik batez ere

eta haundikiek hau diote  
**Atxegako Joan** eta honen  
seme **Joan Beltranen** aurka:  
*"atxegatarrak ez dira inor  
hamarrenak jasotzeko; hama-  
rren horiek elizgizonentzat izan  
behar dute eta orain arte jaso  
dituztenak ere bihur ditzatela".*  
Hemen ere ika-mika da nagu-  
si. Ordu arte bi benefiziatu eta  
erretorea ziren herrian, baina  
1521etik aurrera erretorea eta  
lau benefiziatu jarri ziren.  
Atxegak jasoko zituen hama-  
rrenen 3/4ak, gainerakoa erre-  
toreak. Hala ere, Atxegak  
benefiziatu bakoitzari urteko  
2.000 "maravedi" eman  
beharko dizkio.

Ikamika honek bere horretan  
jarraitu zuen bost mendetan.  
XVII. mendeko auziak fama-  
tuak izan ziren, bi aldeak testi-  
gu eta guzti azaltzen baitziren  
lruñeako gotzaiaren ordeza-  
riaren aurrean (1625. urtea).  
Horrez gain, 1642 eta 1647  
bitartean Atxegako nagusiak  
ez ziren elizara agertu ere egi-  
ten, herriaren haserre zerta-  
raino joan zitekeenaren beldu-  
rrez. 1646an, adibidez, haserre-  
ak haunditu egin ziren, eta  
zigor latzak erori ziren usurbi-  
len. Batzuk eliz katolikotik bota  
zituzten, eta herria elizkizunak  
egiteko eta sakramentuak  
emateko debekuan egon zen.

1669an hamarrenak ematen  
zituzten herritarrek oraindik:  
garitan 70 anega, artotan 195  
anega eta 30 karga sagar,  
gatzaina eta linua. 1870an  
hamarrenak galdu ziren, eta  
orduan eman zitzaion amaiera  
atxegatar eta usurbildarren  
arteko borroka luze honi.

Josu Aranberri


## Aldaketa ugari izan dituen harmarria

Urteetan zehar atxegatarren  
bereizgarri izan den harma-  
rria Atxega jauregiaren aurrean  
ikusi dezakegu oraindik ere. Garai  
batean berezko koloreekin mar-  
gotuta egon zitekeela uste da,  
oraindik ere kolore hauen aztar-  
nak ikusi bait daitezke harmarri  
horretan. Hala ere, atxegatarren  
harmarriak aldaketa ugari izan  
ditu mendeetan zehar.

Garai hartako jauntxoek  
beraien harmarria zuten.  
Borroketara joaten zirenean jaun-  
txoak elkarrengandik bereizten  
zituzten harmarri haiek eramaten  
zituzten beraien ezkutuetan eta  
jantzietan.

Atxegatarren hasierako harma-  
rria zilarrezkoa zela uste da. Bertan  
zuhaitz bat agertzen zen, azpian  
basurde bat zuela.

Atxegako **Migel Ibañez** Olasoko  
**Ines de Ganboarekin** ezkondu



zenez harmarrian ere aldaketak  
izan ziren. Hasierako zuhaitz eta  
basurdearen ezkerretan urdin ilu-  
nezko hru panel jarri zituzten,  
Atxegan olasotarrak sartu zirena-  
ren adierazgarri.

Urte batzuk beranduago berriz  
aldatu zuen Atxegak bere harma-  
rria. Gaur egun Atxega jauregian  
ikusi dezakeguna da aldaketa

horien adierazgarri. Harmarria zati  
desberdinetan banatu zuten.  
Eskubiko aldean zuhaitza ikusi dai-  
teke azpian basurdea duelarik.  
Beste erdia berriz, lau zatitan  
banatuta dago. Goi aldeko ezke-  
rreko zatian eta behe aldeko  
eskubian zilarrezko dorreak  
daude, beren ur putzua eta guzti.  
Ur putzu hauek Atxega jauregia  
ibaiaren ondoan zegoela adieraz-  
ten dute. Gainontzeko bi zatietan  
lehoiak daude.

Bi lehoi eta bi dorreez osatutako  
zatia Kastillako erregeen harma-  
rria zen. **Atxegako Juan Beltran**  
Pedro Manrique (Adelantado  
Mayor de Castilla) eta bere emaz-  
te zen Leonor de Castillaren ezku-  
taria zenez, Kastilako erregeen  
armarria gaineratu zion bere  
berezko harmarriari. Hori bai,  
dorretan ur putzua jarri zuen, bere  
jauregia ibaiaren ondoan zegoela  
adieraziz.



## Hamairu urteko espetxe zigorra

**A**maitu da Pello Arregiren hilketaren inguruan egin den epaiketa. Pasa den azaroaren 2an jakinarazi zuten arabera, Jose Luis Barragan epaileak hamahiru urteko espetxe zigorra ezarri die Antonio G.G. eta Ramon V.V.i eta urtebetekoa azken honen ilobari. Defentsek eskatutako zigorrak ezarri ditu azken finean epaileak.

Bitxidendan egin zen lapurketa saiakeran parte hartu zuten bi gizasemei ezarri zai-zkie zigorrak haundienak. Pello Arregi Ramon V.V.k hil zuela frogatu bada ere, biek zigor bera bete beharko dute. Izan ere, hiltzaile izateagatik hamarna urteko espetxe zigorra ezarri diete. Biei, zigor honetaz gain, kartzela urte gehiagoko zigorrak ere ezarri dizkie epaileak, armak lege kanpo edukitzeagatik eta lapurreta egin nahi izateagatik.



Hirugarren auzipetuari, Luis Miguel S.V.ri urtebeteko espetxe zigorra ezarri dio legez kanpo armak edukitzeagatik, eta sei hilabetekoa beste bi auzipetuen delitua estaltzen saiatzeagatik.

Guzti honez gain, bi hauzipe-tuak hildakoaren senitarteko hurbilei 47 milioiko kalte-ordaina ematera zigortu zituen epaileak. Hala ere, dirutza hori

ordaintzeko gai ez direla izango aurreikusten du epaileak epaian agertzen den beste erabaki batean.


Azkenean defentsek eskatutakoa bete da. Hilketagatik, legez kanpo armak edukitzeagatik eta lapurretan saiatzeagatik jar daitezkeen zigorrak txikiak jartzeko eskatu zuten abokatu defendatzaileek, eta halaxe gertatu da.

## Duela 70 urteko kontuak Saroeren inguruan



**S**aroe Jauregia zaharberitzen hasi ziren duela aste batzuk. Duela 70 urte inguru zaharberitu zuten azkenekoz, hori da behintzat guk jakin ahal izan duguna.

Gutxi dira Usurbilen hontaz gogoratzen direnak. **Hilaria Aizpurua** da bakarrenetariko bat. Bera gogoratzen denez, Aiako mutil batzuk ibili ziren jauregi osoa eskuz zaharberitzen. Aizkora moduko bat ibiltzen omen zuten lanak egiteko. Egun, aldiz, andamioa eta beste hainbat makina ikusten ditugu kale nagusian hautsa eta hondarra arrotuaz. Eskuz bezain ondo "garbituko" al dute? Denborarekin ikusiko dugu hori.



**TXIRIBOGA**  
TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8

TEL. 943 37 30


20170

USURBIL



## Odol emaileen bazkaria

Urteko odol emanaldiak bukatu ondoren, badute oraindik zereginik herriko odol emaileen elkartekoek. Urtero-urtero odol emaileen eguna antolatzen dute, eta Salvatore parrokiaren meza entzun ondoren bazkari ederra egiten dute herriko jatetxeren batean. Iaz Zubietako Alamandegia jatetxean bildu ziren, baina urtero bazkal tokia aldatzen dutenez aurten beste auzo batera joango dira. Anaiarteko bazkari hau Aginaga sagardotegian izango da. Hala



**U**darregi ikastola eta Oiarde kiroldegi aurreko bidean eta Agerialde aurreko bidean ibilgai-luen abiadura murrizteko oztopoak jarri zituzten pasa den azaroaren 4 eta 5ean. Bide honetan jende asko ibiltzen da, batez ere haurrak, eta arriskuak gutxitzeko jarri dituzte oztopoak. Badirudi batzuei ez zaiela gustatu. Jarri eta hiru egunetara oztopo hauei zati batzuk falta zitzaizkien. Agerialde aurreko bideko oztopoari kendutakoak aurkitu dituzte, baina Gernika ibilbidekoak ez.

ere, abenduan izango dela garbi badute ere oraindik ez dute zehaztu noiz izango den odol emaileen egun hau.

Bazkarira joan nahi duenak ordea, dagoeneko bere izena eman dezake. Horretarako lau telefono hauek batera deitu beharko du azaroaren amaiera baino lehen:

- 943 361138 (Juste)
- 943 361187 (Agate)
- 943 37 02 55 (Mertxe)
- 943 36 53 40 (Patxi)

Beraz, badakizue, odol emaileen bazkaria mar-txan da dagoeneko.



**A**zaroaren 12tik 14ra bitartean ez ohiko ikuskizun-aren topagune izango da Kursaal. Plaza izeneko egitasmoan, basoa gaitzat hartuta, musika, dantza, antzerkia, magia, bat-batekotasuna eta sortze-lana bilduko dira bertan. Han izango dira **JosAnton Artze eta Jexux Artze** ere. Lehenengoak "Oihana auhenka" lana estreinatuko du. Txalaparta tresnatzat hartuta **Beñat Axiarirekin, Ninh Lê Quan** perkusio jole frantsesarekin eta **Joxe Bikondoa eta Alfontso Gorostera**zuekin arituko da.



**E**tumeta euskaltegiak argitaratzen duen Berriketaren gehigarriaren irailko alearen berri iritsi zaigu orain. Bertan lehiaketa bat jarri zuten, eta badugu dagoeneko irabazlea.

**Montse Padrones** da Antxetan afaltzeko aukera izango duena, eta badaezpada familia guztiarekin azaldu zen saria jasotzera. Baina ba al dakizue lehiaketako galderaren erantzuna? Hauxe: Lehendabiziko korrika 1980an hasi zen Oñatin eta Bilbon eman zituen azken pausoak.



TABERNA

"GYRE PRESOAK"

HERRIAN BEHAR DITVGV"

Irazu kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17

# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu  
UDAZKEN HONETAN ZURE MODA BERRIA

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 943 36 11 06



# zerdi patsetan

## Finalerdiak lau eta erdian



**P**elota goxoarekin lau eta erdian jokatzeko ari den pelota txapelketa final erdietara iritsi da dagoeneko. Ligaxkako eta finallaurdenetako partidua jokatu ondoren lau artean erabakiko da guztia. Final erdiak azaroaren 12an jokatuko dira herriko frontoian arratsaldeko 20.00etan hasita.

Aurten aurreko urteetan baina bikote gutxiago izan dira

Aitzaga Elkartek antolatutako txapelketa: 12 besterik ez. Hala ere aurreko urteetako bizitasuna eman dio ostiraletan herriko frontoari.

Orain ordea, gauzak estutuz doaz. Pasa den azaroaren 5ean jokatu ziren final laurde-

nak, eta lau bikotek egin dute aurrera. Hauxek dira final erdiak:

**Haritz-Oidui / Aintzi anaiak**  
**Leko-Arroyo / Motza-Txitxo**

Beraz hauetako bi bikote ari-tuko dira azaroaren 21ean jokatuko den finalean. Beste biek hirugarren eta laugarren postua eskuratzeko partidua jokatzearekin konformatu beharko dute.

### Usurbilgo judoa

Bata bestearen atzetik, ezin gelditu. Azken aldian kirol albisteetan etengabeko albiste iturri bihurtu da judoa. Oraingoan Gasteizen bereak eta bi egin dituzte. Bertan izan zen 18 urtez azpiko Euskadiko txapelketa eta domina ugari lortu zituzten Usurbilgo judo elkartekoek. **Andoni Aizpurua, Iñigo Etzaniz eta Aitzol Arrospidek** urrezko dominak lortu zituzten, zilarrezkoa **Xabier Heras eta Iker Pagolak** eta brontzea **Eñaut Arriagak**.

### Behobia Donostia

Datorren azaroaren 14an izango da Behobia Donostia laisterketa. Aurreko urteetan bezala usurbildarrak ere hor izango dira 21 kilometroak ahalik eta hobekien egin asmoz. Batzuk marka ona egitera, besteak parte hartzera, mota guztietako jendea izango da aurten ere. Gogoratu, iaz 25 usurbildarrek lortu zutelapropa hau amaitzea. Aurten ikusi dugu zenbat herritarrek lortzen duten Behobia Donostia amaitzea.

## Emaitzak

### Futbola

#### Urriak 16-17

Usurbil F.T **2** Arretxabaleta **2** (1.R.)  
Zarautz **4** Usurbil F.T **0** (n.)  
A. Ondarroa **1** Usurbil F.T **3** (1.ju.)  
Usurbil F.T **7** Orioko **3** (2.ka.)

#### Urriak 23-24

Ilintxa **2** Usurbil F.T **1** (1.R.)  
Zumaiaiko **4** Usurbil F.T **0** (1.ju.)

### Eskubaloia

#### Urriak 16-17

Usurbil K.E. **21** Gusla Urduliz **23** (2.N.)  
Usurbil K.E. **12** Arrate **22** (ju.m)  
Usurbil K.E. **15** Arrate **23** (k.m)  
Usurbil K.E. **13** Zarautz **5** (ka.n)

#### Urriak 23-24

Urola **23** Usurbil K.E. **28** (2.N.)  
Urdaneta **19** Usurbil K.E. **14** (ju.m)  
Urdaneta **23** Usurbil K.E. **13** (k.m)  
Bergara **4** Usurbil K.E. **23** (ka.n)

### Hondartzako futbola

Aginaga Sagar. **9** Pizza Queen **1**

### Futbol aretoa

Eskolapioak **4** Karobi taberna **1**  
Karobi taberna **2** Martutene **1**

### Laburdurak

R.: errejionalak    ka.: kadeteak  
N.: nazionala    n.: neskak  
ju.: jubenila    m.: mutilak

## PATRI

### JATETXEA

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



## Urteinea Elkartea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

## ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Zublaurena, 10  
Tlf. 943 37 18 07- Faxa.: 943 37 63 41





# Asteasuaingo Zentru Komertziala ez dute udaberri arte irekiko


**L**asarte-Oriako Udalak Eroski Kooperatibari saldutako lurretan egiten ari den gune komertziala askoren ahotan egon da azken bolada honetan. Obrak duten itxurengatik zaila dirudi udaberriko gune komertziala irekitzea. Alkateak aurreratu ahal izan digunez, badirudi udaberri irekiko dela azkenean.

Abiadura haundiz doaz Eroskiko obrak, hala ere ez dirudi hasiera batean aurreikusitako epean amaituta egongo direnik. Eroski kooperatiba berak eguberritarako irekitzeko asmoa azaldu bazuen ere, azken datuen arabera, badirudi udaberri arte atzeratuko dela gune komertzialaren irekiera. Izan ere, udaberriaren ematen den moda aldaketa dela eta, gune komertzialeko ateak urtaro honen hasieran zabaltzea komenigarritzat jo dute.

## 75.000 m<sup>2</sup> inguruko zabalera izango du

Zentru komertzialak, sarbideak eta ordenamenduan agertzen diren ekipamendu ezberdinak sartu gabe, guztira 75.000 m<sup>2</sup> inguru ditu, proiektuan agertzen den gasolindegia eta aparkalekua barru.

Bi sarbide nagusi izango ditu: bata Txikiardi aldetik sartuko dena, eta beste, A-8 eta N-



Telkartzen dituen bidegurutzetik datorrena (Luzuriaga eta Fagor gainera) egiten ari dena). Hortik bi norabide izango dituen bide berri bat irekiko da, eta lurubide etxearen gainera igaroz iritsiko da bertara. Txikiardi aldetik datorren bidea norabide bakarrean Lasarteruntz joango da. Mitxelingo aparkalekura iristean ezkerrean hartu eta eraikitzen ari diren etxe berrien artean pasatuaz, ENAM pabeiloia- ren ondok iritsiko da gune komertzialera.

Lasartera joan nahi duen orok, Mitxelingo aparkalekutik zuzenean Eroskira doan bide honetatik sartu beharko du beraz, obrak amaitu bezain laister. Bide honetan bertan beste bide bat irekiko da berriz ere Lasarte-Oriara hartuko duena.

Bide hauen eraikuntza kostuak Eroskik ordaindu behar ditu. Hauen mantenua, berriz, Eroski eta Foru Aldundiak eginitako hitzarmen batek arautuko du.

Zentru komertzialak bi alboetara aparkalekuak izango ditu sarbide banarekin. Ibilgailuak uzteko guztira 2513 m<sup>2</sup>ko zabalera duen aparkalekua izango da.

Zentru komertzialaren alboan, Usurbilgo lurretan zehazki, ekipamendu deportiboak egiteko proiektua ere martxan dago ja. Lurzoru honetan atletismo pista, futbol zelaia... joango direlarik. Honetaz gain, gune komertzialean bertan, oso ezagunak ditugun mota guztietako dendak ere egongo dira; Forum, Zara, Levis...

Agurtzane Solaberrieta

**N • U**  
**Ileapaindegia**

MISTOA  
Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**TXARO ARTZE  
ILEAPAINDEGIA**

Buru-azalaren zainketa  
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85



## Sarrera-irteeren arazoa konpondu nahian

**U**surbilgo sarrera eta irteeretan arazoak pilatu izan dira azken urteetan.


Etxealdiako sarrera berria egin dute, eta orain Gipuzkoako Foru Aldundiak Etxealdiatik N-634 errepidera irtetzeko proiektu garrantzitsu bat gauzatu nahi du. Etxealdiako bizilagunak eta udalak, ordea, ez dute proiektu hau onartzen.

Behin baino gehiagotan ikusi izan ditugu kamioiak herri barruko bidean, ez aurrera eta ez atzera, kamioi gidariak Bilbora edo Atalluko industrialdera joateko zer norabide hartu behar duten galdezka ari diren bitartean.

Ostapeko sarreratik behin baino gehiagotan sartzen dira kamioi hauek, eta gero Zarautz aldera edo industrialdera joateko herria zeharkatu behar izaten dute. Horrez gain, Ingemarren kamioi ugari ibiltzen da, eta horiek Zarautz aldera joan nahi badute herria zeharkatu beste irtenbiderik ez dute.

### 35 milioiko proiektua

Honen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etxealdiatik N-634 errepidera Zarautz alderako norabidean irteera bat egin nahi du. Proiektua egin dago, baina **Joxe Antonio Alfuna** alkatearen esanetan proiektu haundia da, "baina arazoak guztiz konponduko ez dituen". Izan ere 35 milioiko aurrekontua duen proiektu



honetan Etxealdiatik Aitzaberriko norabide alderak bitarteko azelerazio bide bat aurreikusten da.

Etxealdiako bizilagunak proiektu honen aurka atara dira. Foru Aldundiak egindako proiektu hau gauzatzen bada Etxealdiako urbanizazioari hiru metro jango dizkio Gorriti taberna aurreko eremu horretan, eta bizilagunak udalari bere desadostasuna agertu diote.

Udalak ere ez du beharrezkotzat ikusten azelerazio bide hori. "Proiektu hau gauzatuaz gero behin betirako izango litzateke, baina honek ez ditu sarrera-irteeren arazo guztiak konpontzen. Ingemarrera joateko kamioiek Ostapetik sartu beharko lukete eta Kale Nagusitik pasa behar dute".

Alkatearen ustez Etxealdian irteera egin behar da, baina

Bizkarre paretik Donostia aldera joateko dagoen irteeraren antzekoa, "stop" batekin hain zuzen ere. Honekin batera, Atxegaldetik N-634 errepidera dagoen irteera parean errotonda bat jartzea proposatu nahi du udalak. Oraingoz idea bat besterik ez da, baina laister teknikoaren esku utziko dute bideragarria den hala ez jakiteko.

### Errotondaren beharra


Errotonda honekin arazo desberdinak konponduko lirateke. Donostia aldetik datoze-la Ingemarra joan behar duten kamioiak ez lirateke Kale Nagusira Ostapeko zubitik sartuko. Errotondan buelta eman eta Bizkarre aldeko sarrera hor izango lukete. Bestalde, Atxegaldetik N-634 errepidera ateratzerako irteera arriskutsua da, bidea zeharkatu behar baita. Errotondarekin hau ere konponduko litzateke.

## XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez,  
eta dasta itzazu  
Goierriko produktuak

- × Idiazabal gazta
- × Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66



# Ekaitz

## Bideo eta Argazkiak

Usurbil

☎ 943 36 14 87

OIARTZUN

## PORTULARRUME



### ITURGINDEGIA BAINUKO ALTZARIAK



Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99



## Santa Zezili kontzertu zikloa

**Z**uhaitzak biluzten ari diren urte sasoi honetan, musikook gure ahots eta tresnak prestatzen gabiltza ingurua doinuaz jazteko asmoz, aurki baitugu gure patriaren eguna, Zezili deunaren eguna. Hau dela eta, Usurbilgo Organoaren Lagunak, Txistulari taldeak, Trikitilari taldeak eta Zumarte musika eskolak kontzertu ziklo bat prestatu digute. Bertan doinu zahar eta berri, ezagun eta ezezagun, bertako eta urrutiko ugari entzuteko aukera izango dugu.

Kontzertu zikloa 3 ekitaldietan banatu da. Lehenean Salbatore elizako organo bikaina izango dugu protagonista, Esteban Landart irundarra izango delarik organojole. Berak, beste autore batzuen artean, Cesar Frank eta J.S. Bach-en obrak eskeiniko dizkigu. Azaroaren 19an izango da, arratsaldeko 20.00etan. Kontzertu honetan organojoleak musika tresna nola jotzen duen ikusteko aukera izango da; telebista eta bideo sistema baten bidez pantaila haundi batean ikusiko baiditugu irudiak.

Bigarren ekitaldia, Igandean, 21ean, izango da. Herriko txistulari taldeak eskeiniko digu. Lehenik herria girotzeko eta kalera irtetzera animatzeko kalejira bat egingo dute, 11:00etan izango da. Ondoren, 13:15etan, frontoian, ohituta gauzkatzen emanaldi

ZER	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Organo kontzertua, Esteban Landarten eskutik.	99-11-19 ostirala	20.00	Salbatore eliza
Txistulari taldearen kalejira	99-11-21 igandea	11.00	Herriko kaleak
Txistulari taldearen kontzertua	99-11-21 igandea	13.15	Herriko frontoian
Trikitilari taldearen kalejira	99-11-22 astelehena	17.30	Herriko kaleak
Zumarte musika eskolako ikasleen kontzertua	99-11-22 astelehena	18.30	Udarregi ikastola

trebea eta atsegina eskeiniko digute, doinu herrikoi eta H. Olazaran, I. Ansorena eta beste batzuenak tartekatuz.

### Zumarteko ikasleen emanaldia

Hirugarren ekitaldia Zezili deunaren egunean, Azaroak 22, astelehena, izango dugu; eta bertan, herriko musikaririk gazteenak izango ditugu protagonista. Lehenik, arratsaldeko 17:30etan, herriko trikitilariak kalejira batekin siestatik aterako gaituzte, kalera gonbidatu, eta Hamelingo xagutxoak bezela, Udarregi ikastolarrino eramango doinu alaiekin. Arratsaldeko 18:30etan, ikastolako areto nagusian, Zumarte musika eskolako ikasleak prest aurkituko ditugu, eskuetan musika tresnak eta partiturak, eta gogoan gauzak txukun

egiteko nahia. Zumarten ikas ditazkegun tresnak entzungai izango ditugu: bibolina, klarinetea, perkusioa, flauta, pianoa, saxofoia, alboka, txistua, kitarra eta eskusoinua.

Bederatzi obra eskeiniko dizkigute, ezagunak gehienak. Beste autore batzuen artean, Steve Pogson, Bob Dylan eta J.S. Bach-enak entzungo ditugu. Guztiak herriko musika harrobiaren esfortsuaren adierazgarri.

Kontzertu ziklo honetara guztiok gonbidaturik zaudete. Ez hutsik egin!

Antolatzaileak: Organoaren Lagunak, Txistulari taldea, Trikitilari taldea eta Zumarte musika eskola. Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Salbatore Parrokia eta Udarregi Ikastola

**SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA**

**IOSU**

Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>da</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

**INDUSTRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA**



### Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES  
**SETABU, S.L.**  
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL





## “Ez dira hemengoak eta ez ditugu hemen nahi”

**A**zken garaiotan gero eta maizago entzuten edo ikusten ari da kalean “Alde hemendik” leloa. Zer esan nahi da horrekin?

Argi dago Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta Gendarmeak funtzio zehatz bat betetzeko daudela hemen. Euskal Herriaren burujabetza ukatu eta Frantzia eta Espainiaren Konstituzioak euskaldunoi inposatzeko hain zuzen. Gobernu hoiien aginduetara eta interesen zerbitzura aritzeko daude hemen eta euskaldunon hitza eta erabakia bost axola zaie. Beraz, ez dira hemengoak eta ez ditugu hemen nahi. Gainera, ezinezkoa da Euskal Herrian Prozesu demokratiko bat garatzea, indar armatu okupatzaile guztiak gure lurretatik kanporatu gabe.

### Baina Usurbilen ez daukagu koartelik...

Hala hobeto. Baina horrek ez du esan nahi Guardia Zibilaren eta antzekoen presentzia ez dagoenik. Nori ez zaio suertatu Troia aldean edo Aginaga inguruan kontrol zorrotz bat jasatea? Gainera koartela ez izanagatik, Usurbil Euskal Herriko parte denez, egoera orokorra ere kontuan hartu behar da, ezin gara gelditu gure zilborrari begira.

### Amnistiaren aldeko batzordearen bafiko helburua izan da amnistia lortzea. Nola ulertzen duzue amnistia une honetan?

Egia esan beti modu berean ulertu izan dugu. Euskal preso eta exiliatu politikok, euskaldunoi inposaturiko gatazka politikoaren ondorio zuzena dira, Euskal Herriaren nahi, behar eta eskubideak aintzakotzat ez direlako hartzen. Egoera horrek armaz ere borrokatzera behartu du Herria bere nortasun defendatzeko eta hau ez da soilik azken berrogei urtetako kontua, historikoa baizik. Horrenbeste preso eta errepresaliatu eragin duen egoera errotik aldatu behar da eta horretarako derrigorrezkoa da guztion partehartzea, baita beraiena ere. Hori ziurtatzeko modu bakarra eta justiziazkoa, preso eta exiliatuen kaleratzea eta etxeratzea ahalbi-



deratzea da. Hori da benetako amnistia.

### Inoiz lortuko al da gatazka konpontzea?

- Bai noski. Baina hori gu guztion esku dago. Ez dugu ba esperoko zerutik emanda etorriko zaigula ezta? Prozesu demokratikoa behar bezala burutu dadin eta benetan demokratikoa izateko, argi eta garbi izan behar dugu alde aurretik oinarri batzuk jarri behar ditugula, hau da, indar okupatzaileen kanporatzea eta amnistia lortu behar direla. Soilik horrela garantizatuko da guztion partehartzea baita euskal preso eta errefuxiatuena. Euskal Herriko prozesu demokratikoaren partaide zuzenak izateko eskubidea dute. Beraz, gainontzeko euskal errepresaliatuak bezala, Xomorro, Patxi, Ramon eta Xabierrek beren hitza izan behar dute prozesu honetan, are gehiago Euskal Herriaren askatasunaren alde horrenbeste egin dutenean. Datorren azaroaren 20an, hain zuzen, Oinarri demokratikoak Euskal Herriarentzat lemapean Anoetako belodromoan ekitaldi nazionala egingo da. Guztiok gonbidatuta zaudete bertan parte hartzera.

### Azken egunotan presoek gose greba bati ekin diote. Lehen azaldu duzenarekin zerikusirik ba al du greba horrek?

Hala da, bai. Euskal preso politikoen kolektiboak gose greba mugagabe bat hasi du. Borroka honi hasiera eman diotenak

Basauri, Iruñea, Langraitz, Martutene, Fleury-Merogis eta La SantÈ-ko espetxeetan dauden 20 preso izan dira eta beste kartzelakoak gehitzen ari dira. Beren eskakizunen artean, hain zuzen ere, euskal preso politiko guztien kaleratzea dago, Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan parte hartu ahal izateko. Bien bitartean, euskal preso guztien Euskal Herriratzea, zigorren 3/4ak bete dutenen eta gaitoxotasun sendaezinak dituztenen baldintzapeko askatasuna eta erbestean **daudenen entrega eta estradizioak amaitu eta Euskal Herrian libre bizitzen uztea.**

### Beraz, kalean ere mobilizaziok izango dira

Amnistiaren Aldeko Batzordeak bat egiten du eskakizun horiekin. Horregatik mobilizazioak konbokatuko ditugu. Badakigu urtean zehar mobilizazio dinamika handia izaten dela baina herritarrei dei berezia egin nahi diegu egoeraren larritasunaz jabetu daitezten. Orain artean presoak egin dituzten borroken ondorioak larriak izan baldin badira, oraingo grebarenak askosaz arriskutsuagoak izan daitezkeela. Inork ez du nahi gure Bobby Sands edukitzea. Beraz, berriro diogu: deialdi sutua egiten diegu presoan egoerarekiko sentsibilitatea duen herritar orori bere indar eta energia guztiak batzeko egingo diren mobilizazio eta ekimenetan. Presoen eskakizunekin bat eginez bultzatuz ditzagun oinarri demokratikoak Euskal Herriarentzat.

**Amnistiaren Aldeko Batzordea**



## Bertsoak

### Ziria sartzen

Txirrindaz igo nintzen  
akar Txindokira,  
gero salto bat egin  
Anboto mendira,  
bost egun pasa ditut  
sorginei begira,  
eta denak nirekin  
maitemindu dira

Juxtok pasatu ditu  
egunak mendian,  
ni ibiliko nintzen  
jolasten agian,  
katiuskak jantzita  
umore onian,  
perretxikuak biltzen  
itsaso aldian.

**Doinua:** "Nire sentimenduak"  
**Egileak:** Aloña, Nerea eta Josu  
(Aginagako Herri Ikastetxea)

## Lehiaketa

**Zer garaitan ateratakoa da argazki hau?**



- A) 1945-1949
- B) 1949-1955
- D) 1955-1959

Asmatzaileen artean  
Patri tabernan bi per-  
sonentzako afaria  
zozketatuko dugu.

Azken aleko lehiaketan gauzak ez genituen horren erraz jarri. Izen denak eskatu genituen, eta noski, denak ematea... Hala ere izan dira erantzuna zuzen-zuzen eman dutenak ere. **Agustin Dominguez, Iker Mujika, Imanol Bereziartua, Aitor Usandizaga, Manuel Piñeiro, Garikoitz Agorreña, Jon Arreguy, Igor Garcia, Fernando Molano, Jose Luis Alvarez, Jose Ignacio Olasagasti, Oscar Martin, Igor Sasiain, Haritz Zubiaur, Tomas Gilarte, Diego Lucero, Diego Elvira, Goyo Calvo, Jose Luis Sanchez, Ibon Borda eta Iñigo Garcia de Eulate** dira argazkian agertzen direnak. Irabazlea berriz, argazkian ateratzen dena bat, **Agustin Dominguez** hain zuzen ere. Berak izango du Antxetan afaltzeko aukera. Zorionak!

## TXIMINIA ALTZARIAK

### Osinalde industrialdea

(Aizpurua autobusen aldamenean)

**Tel.: 943 37 09 66**

BISITA EZAZU

ALTZARI ERAKUSKETA HANDI BAT  
USURBILEN BERTAN.

PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA  
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.

*ESKAINITZA BEREZIAK BETI!!*



# A genda

## AZAROAK 13 larunbata

- Herriko tabernarien elkarteak antolatuta Peio Añorga kontu kontalariak bere saioa eskainiko du Gure Pakea tabernan gaueko 20.30etan hasita.

## AZAROAK 15 astelehena

- Euskal Herria Askatu konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

## AZAROAK 19 ostirala

- Santa Zeziliko kontzertu zikloaren barnean organo kontzertua Esteban Landarten eskutik. Salvatore elizan 20.00etatik aurrera.
- Bota Punttubak antolatuta Xabier Amurizak "Lazkao Txikiren antologia" bertso kan-

aldia eskainiko du Udarregi zaharrean gaueko 22.30etatik aurrera. Bertan Lazkao Txiki zenaren bat-bateko bertsoak abestuko ditu.

## AZAROAK 21 igandea

- Santa Zezili ospakizunen barnean txistulari taldearen kalejira herriko kaleetan goizeko 11.00etan. Ondoren, 13.15etan talde beraren kontzertua herriko frontoian.
- Aitzaga elkarteak antolatzen duen lau eta erdiko pelota txapelketaren azken partidua herriko frontoian.

## AZAROAK 22 astelehena

- Trikitilari taldearen kalejira herriko kaleetan 17.30etan hasita.

- Zumarte musika eskolako ikasleentzako kontzertua Udarregi ikastolan arratsaldeko 18.30etan.

- Euskal Herria Askatu konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

## OHARRAK

- ✓ Usurbilen 3-4 gelatako pisua behar da alokairuan inmobiliarik gabe. Deitu gaueko 22.00etatik aurrera 943-361210 telefonora (Niko).
- ✓ Andatzpe elkartearen bazkide hutsune bat dago. Baldintzak jakin nahi dituenak deitu 943-366760 telefonora
- ✓ Bi haur zaintzeko esperientziadun emakume bat behar dugu (30 urtetik gorakoa) Deitu 943 363997 telefonora.



Datorren azaroaren 19an Xabier Amurizak "Lazkao Txikiren antologia" aurkeztuko du Udarregi zaharrean gaueko 22.30etatik aurrera Bota Punttuba bertso eskolak antolatuta.

## ODOL EMAILEEN BAZKARIA

Odol Emaileen Elkarteak urtero bezala odol emaien bazkaria antolatu du. Eguna oraindik zehaztu gabe badago ere, bazkaria Aginaga sagardotegian izango da abenduan.


Izena emateko deitu azaroaren amaiera baino lehenago:

- 943 361138 (Juste)
- 943 361187 (Agate)
- 943 37 02 55 (Mertxe)
- 943 36 53 40 (Patxi)

## Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 36 12 20



Igandetan ganba-ziri mundialak!

ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMEN



# Microsoft Windows 98

## gida liburua

# doan

### ERANTZUNA BEREHALA


- ▶ Irakurterraza
- ▶ Argibideak urratsez urrats
- ▶ Ikono eta irudi argigarriak
- ▶ Sarrerak ordena alfabetikoan
- ▶ 160 orrialde koloreetan
- ▶ Couche paperean inprimatua
- ▶ Tamaina: DIN A4

### Nola jaso dezaket WINDOWS 98 gida liburua?


- 1- Azaroaren 14ko egunkariarekin batera plantila bat jasoko duzu. Hor itsatsi behar dituzu hurrengo egunetan egunkariak argitaratuko dituen kupoiak.
- 2- Azaroaren 27an banatuko dugu azken kupoa, eta azaroaren 28tik aurrera jaso ahal izango duzu zure kioskoan Windows 98 gida liburua. Hasieran jaso duzun plantila, eguneroko kupoiak itsatsita dituela, zure kioskoan eman beharko duzu.
- 3- Kupoiaren baten faltan gelditzen bazara, azaroaren 28an ordezeko bat banatuko dugu; falta zaizun edozein kupoi ordezkatu dezake horrek.

**OHARRA:** liburua eskuratu ahal izateko, banaketa arazorik ez edukitzearen, 200 pezeta ordaindu beharko da.

**HARPIDEDUN** guztiak etxean jasoko dute liburua doan, kupoirik bildu gabe.



### Babesleak:



www.euskadi.net



www.gipuzkoa.net



www.bizkaia.net



Egileak: **eraz** **Egunkaria**



Zure independentzia!



# Usurbilgo OFIZIOAK

## zure eskura dituzu

### Aroztegiak

#### **BEREZIARTUA**

Egurrezko eta aluminioegurrezko  
lehioak  
Izpira etxea  
Aginaga  
☎ 943 37 15 71- Faxa 36 01 59

#### **GONSABI S.L.**

Ugarte, 9  
Kalezar  
☎ 943 37 10 61

#### **IBARGOEN, JOSE RAMON**

Neurriko altzariak  
Errotaberri kalea, 3- Osinalde  
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

#### **IKUTZA, JOSE MARI**

Ugarte,4  
Kalezar  
☎ eta Faxa 943 37 12 21

### Iturgintza

#### **LATAILLADE, IÑAKI**

Aristitxulo kalea, 8  
Atxegalde  
☎ 943 36 33 48 - 36 26 35

#### **ORBEGOZO, JAVIER**

Iturgintza, gasa eta berogailuak  
Bizkarre kalea, 1- 1.esk  
Kaleberri  
☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

#### **OSTAPE - ARANGUREN**

Ostape etxea  
Kalezar  
☎ 943 36 16 95 -

#### **PORTULARRUME, XEBERO**

Kale Nagusia, 10  
Kaleberri  
☎ 943 36 46 37

### Igeltseritza

#### **ARANZAZISTROKI, JOSUE**

Igeltseritza eta pintura  
Aldapatxo etxea  
Kalezar  
☎ 943 36 24 71 - 36 05 50

#### **ERRAZKIN C.B.**

Kale nagusia, 1  
☎ 943 37 26 79  
Santuenea  
☎ 629 42 05 65

### Pinturak

#### **FERNANDO PINTURAK**

Bizkarre, 6  
☎ 943 36 60 19 - 36 34 60

#### **BARCENILLA, RAMON**

☎ 629 46 09 66

#### **ION PINTURAK**

Orio  
☎ 670 39 75 04 - 943 83 09 37

### Elektrizitatea

#### **IZAGIRRE, MIKEL**

Goiz-Argi etxea, 37  
Kalezar  
☎ 943 36 50 95

#### **ARGILAN**

Instalakuntza elektrikoak  
kontzeju zaharra, 13  
☎ 943 37 02 74

### Eskaiola

#### **NORIEGA, EUGENIO**

Erdiko kalea, 12  
Atxegalde  
☎ 943 36 56 65

#### **ELORZA, JOSE ANTONIO**

Galtzaragaina 2 - 2.B  
☎ 943 37 34 70

Gida honetan azaldu nahi  
baduzu, deitu!  
943 36 03 21  
telefonora!